

Bigarren urtez irakurketa klubak egingo dira Lezoko udal liburutegian

Liburuak ez dira erosi behar eta datorren ostiralera arte zabalik dago izen-ematea

LEZO. Lehenengo edizioa, 2011-2012 ikastarokoa, 'arrakastatsua izan zen' eta horregatik, Lezoko udal liburutegiak bigarren aldiz martxan jarri ditu aurtan euskarazko eta gaztelarazko irakurketa klubak.

'Iazkoetan, hamar lagun aritu ziren euskarazko liburuak irakurri ondoren elkartu eta hauei buruz eztabaidan, eta beste zazpi lagunek parte hartu zuten gaztelarazko liburuen irakurketa klubean. Horregatik, esperientzia errepikatzea erabaki dugu eta izen-ematea zabalik dago irailaren 28ra arte', esan dute Lezoko liburutegitik bidalitako ohar baten bitartez.

Aurtengo liburuak

Euskarazko irakurketa kluba Ane Mayozen dinamizatuko du eta astelehenetan egingo da, 18.30etik 20.00tara, honako data hauetan: urriaren 29an, Karmele Jaioren Amaren eskuak liburuarekin; abenduak 17an, Mikel Peruarenaren Ez obeditu inori izango da aztergai; otsailak 25ean, Garazi Kamioren Beste norbaiten zapatak eta apirilak 29an, Bernardo Atxagaren Zazpi etxe Frantzian.

Gaztelarazko irakurketa kluba Javier Minak gidatuko du eta astearteetan egingo da, honako data eta liburuekin: azaroaren 27an, Natalia Ginsburgen Léxico familiar obrarekin; urtarrilaren 29an, Philip Rothen Patrimonio. Una historia verdadera aztertuko dute; martxoaren 26an Ian McEwanen Solar izango dute eztabaidarako gai eta maiatzaren 28an, Georges Simenonen La mirada indiscreta.

Erosi gabe

Irakurketa klubetan izena ematen dutenek ez dituzte obra guzti hauek erosi behar, Lezoko liburutegiak berak haien eskura jarriko baititu, hitzordu bakoitza baino hiru aste lehenago.

Irakurketa guzti hauetarako aukeratu diren liburuen laburpenak eta irakurketa klubei buruzko informazio guztia, Lezoko udal liburutegiaren web orrian eskura dago, www.lezo.net/liburutegia helbidean.

Ikasturte berri honetarako izen-ematea ekainaren 8an zabaldu zen, baina berantiarrek edo ahaztuta zeukatenek, oraindik aukera badute irakurketa klubetara apuntatzeko, datorren ostiralera arte.